



GOBIERNO
DE ESPAÑA

MINISTERIO
DE EDUCACIÓN

Hezkuntza-sistemaren egoerari buruzko txostena

2007/2008 Ikasturtea



CONSEJO
ESCOLAR
DEL ESTADO

educacion.es



MINISTERIO DE EDUCACIÓN
Consejo Escolar de Estado

Edita:

© Secretaría General Técnica
Subdirección General de Información y Publicaciones

Catálogo de publicaciones del Ministerio:
educacion.es

Fecha de edición: 2009
NIPO: 660-09-124-7

Depósito Legal: M-29720-2009

Imprime: Estilo Estugraf Impresores, S.L.

Aurkibidea

Aurkezpena	5
Hobekuntza-proposamenak	9
0. Orokorrak.....	9
1. Haur Hezkuntza.....	10
2. Lehen Hezkuntza	12
3. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza.....	13
4. Derrigorrezkoaren ondoko irakaskuntza: Batxilergoa eta Lanbide Heziketa.....	15
5. Etorkizuneko lehentasun nagusia: hezkuntzan inbertitzea (gastua)	19
6. Bizikidetza	21
7. Hezkuntza-partaidetza	22
8. Unibertsitatekoak ez diren irakaskuntzako etapa guztietako hobekuntza-proposamenak.....	22

Aurkezpena

Estatuko Eskola Kontseiluak, 2009ko ekainaren 4an egindako osoko bilkuran, Espainiako hezkuntza-sistemaren egoerari buruzko urteko txostena eztabaidatu eta onartu du (2007/2008 ikasturteari dagokionez). Modu horretan, irakaskuntza ez unibertsitarioen kontsultarako eta partaidetzarako organo gorenak irakaskuntzaren programaketa orokorrean parte hartzeko eginkizuna bete du. Txosten hori hogeita bigarrena da Hezkuntzarako Eskubidea arautzen duen ekainaren 3ko 8/1985 Lege Organikoak Estatuko Eskola Kontseilua sortu zuenetik, aipatutako txostena ikasturtero taxutu, onartu eta jendartera zabaltzeko xedez. Txostenak egiteak lan handia eskatzen du, eta eskertzeoak dira Kontseiluan ordezkaturik dauden eta hezkuntzan implikazio zuzena duten sektoreek egindako ekarpen eskuzabal eta eraikitzaileak. Esker ona eman nahi diet kontseilari guztiei; izan ere, aurten, guzion ahaleginari esker, joan den kurtsoko txostenak onartzea lortu dugu kurtsoa amaitu aurretik.

2007-2008 kurtsoko hezkuntza-sistemaren egoerari buruzko txostenak arretaz irakurri eta aztertzen badugu, Spainian hezkuntza-arloan dauden erronka nagusiak bereiztea ahalbidetzen duen sintesi bat egin daiteke. Erronka horiek bat egiten dute irakaskuntzaren programaketa orokorrean parte hartzeko organo goren honetan ordezkatutako sektoreak azpimarratzerakoan, eta baita erronka horiei arrakastaz ekiteko jarraitu beharreko jardunbide premiazkoak azpimarratzerakoan ere:

1. 2010. urteari begira hezkuntzara bideratutako inbertsioari dagozkion aurrekontuak nabarmen areagotzea, krisi-garaian etorkizuneko inbertsio onena dela aitortzeko, eta *PlanE* planaren baliabideak erabiltzea, enplegua indartzeaz gain, eskola-azpiegitura hobetzeko; azken batean, herritarren ondare eta isla izan dadin.

2. Hezkuntza Arloko Batzarrak *Plan Educa3* plana betetzeko beharrezko neurriak har ditzala, Haur Hezkuntzako lehen zikloan dauden plazak bete daitezela, eta etapa horretako hezkuntzaren kalitatea eta izaera berma dadila.
3. Hezkuntza Arloko Batzarrak lehentasunak finka ditzala *Eskola uztearen prebentzio planean* aurreikusten diren ekintzen artean, eta hezkuntza-arloko administrazioek har ditzatela ikasle guztiak gutxienez PCPI egiaztagiria eskuratzeko beharrezko neurriak. Edozein kasutan ere, derrigorrezko bigarren hezkuntzako titulua eskuratu gabe derrigorrezko eskolatze-aldia bete duten ikasleek erdietsitako oinarritzko konpetentziak egiaztatzea, hezkuntza-sistematik inolako egiaztagiririk eskuratu gabe irten ez daitezen.
4. Hezkuntza Arloko Batzarrak Lanbide Heziketaren sistema integratu eta malgu bat susta dezala ausarki, eta gara dezala lan-esperientziaren bidez eta ikaskuntza ez formalen bidez eskuratutako konpetentzia profesionalak ebaluatzeko eta egiazatzeko procedura bat; halaber, Aukera Berrien Zentroen Sarea gara dezala, pertsona helduak erakartzeko gune gisa. Hori guztia derrigorrezkoaren ondoko Bigarren Hezkuntzan titulatuen tasa nabarmen areagotzeko xedez, bizitan zeharreko ikaskuntzaren testuinguruauan.
5. Eskumeneko administrazioek nazioko eta nazioarteko ebaluazioen emaitzak erabil ditzatela hezkuntza-sistema hobetzeko eta lehentasunak ezartzeko zentroen eta ikasgelen lana dinamizatzeko neurri egokiak hartzen direnean.
6. Eskumeneko administrazioek ahalegin handia egin dezatela irakasleen hasierako prestakuntza eguneratzeko eta hobetzeko; behar diren baliabideak erabil ditzatela eta Haur eta Lehen Hezkuntza nahiz Bigarren Hezkuntzako masterra berehala ezartzea susta dezatela; eta prestakuntzaren alderdi praktikoa kalitatez eta zorroztasunez ematea berma dezatela.

7. Kontseiluko presidentetzak Hezkuntza Ministerioari eska diezaiola, datorren kurtsoari begira, lehentasunezko gaietan abiatutako ekintzen ebaluazioa ezagutzeko adierazleak taxutzea, hurrengo txostenean erregistratutako aurrerapenak barneratu ahal izateko.

2010. urteko lehen seihilekoan, Espainiak Europar Batasunaren presidentetza izango du, eta dagoeneko iristear dago une hori. Horrenbestez, Lisboako Estrategian finkatu ziren helburuei dagokienez gure egoeraren inguruko balantza egiteko unea da. Ahal den arlo guztietañ helburu horiek erdiesteko eta oraindik aurreikusitako helburuak eskuratzetik urrun gauden haietan gure emaitzak hobetzeko, ezinbestekoa da guztiok ahalegin berezia egitea (administrazioak, ikastetxeak eta eskola-elkartea).

Horrenbestez, adostasun-maila handi bat lortzea balio erantsia dela jakinik, Estatuko Eskola Kontseiluak ahalegin berezia eskatzen die agintariei, eskola-elkarteari eta kontseiluari berari, hezkuntzaren hobekuntzan elkarlanean aritzeko. Hori dela eta, eskatzen diren berehalako esku-hartzeak ez dira soiliik sektore baten edo sektore ugariren proposamenak; areago, eskola-elkarte osoaren nahimenak dira, hezkuntza-sistemaren egonkortasuna eta eraginkortasuna erdiestaña xede dutenak. Horregatik, Kontseiluak dei egiten die Hezkuntza Ministerioari, Hezkuntza Arloko Batzarrari, hezkuntza-arloko administrazio guztiei, instituzioei, organismoei eta orobat gizarteari, bakoitzari dagokion konpetentzia eta erantzukizuna aintzat hartuz, hezkuntza izan dezaten lehentasun nagusi gisa; izan ere, hezkuntzan egiten den inbertsio orok etekin individual eta sozialak ekartzen ditu, eta, modu horretan, gizarte-ongizatea biderkatu egiten da.

Txostenaren alderdi formalak eta edukia

Aurreko kurtsoetan taxututako txostenen antzeko egitura mantendu da, arreta aztergai dugun ikasturteko alderdirik azpimarragarrienetan jartzeko, informazio estatistikoak eta dokumentazioak ematen dituzten datuen eta xehetasunen aberastasuna galdu gabe. Horrez gain, joan den kurtsoan osoko bilkuran onartutako hobekuntza-proposamenak

gaztelaniaz nahiz estatuko hizkuntza koofizialetan argitaratu ziren (haien hedapena areagotzeko eta eskola-elkarrekin instituzioetan izan dezakeen eragina handitzeko), eta, aurten, ingelesez ere argitaratuko dira.

I Atalean, kurtsoan zehar izandako gertakari adierazgarrienen azterketa egin da.

II. Atalean, gure sistemako sei alderdi nabarmenenak eta nazioarteko sistemekin egindako konparazioa bildu dira sei kapitulutan; horrez gain, beste kapitulu bat gehitu da, partaidetzari buruzkoa. Bertan, eskola-kontseilu autonomikoen eta estatukoaren arteko hemezortzigarren topaketan ateratako ondorioak eman dira. Topaketa hura Euskal Herriko Eskola Kontseiluak antolatu zuen, Bilbon, eta *oinarrizko konpetentziak* izan zen lan monografikoaren gaia. Kapitulu bakotzean, Estatuko Eskola Kontseiluaren arabera hezkuntza-arloko administrazioetara helaraztea komeni diren *hobekuntza-proposamenak* zerrendatu dira.

III. Atalean, informazio estatistikoa eta dokumentazio oro jaso da – epigrafetan sailkatuta, aurreko kurtsoetako egiturari jarraituz–, datuak errazago bilatzeko eta konparatzeko; gainera, mantendu egin da Ceuta eta Melillari dagokion atal espezifikoak.

Papereko argitalpenarekin batera datorren CDan dago atal horietan guztietan emandako informazio oro. Bestalde, Spainiako hezkuntzaren alderdi nagusien (Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Derrigorrezkoaren Ondoko Hezkuntza, Bizikidetza, Berdintasuna eta Partaidetza) osagarri diren hobekuntza-proposamenak beste hobekuntza-proposamen orokor batzuekin osatu dira, berak baitira irakaskuntza ez unibertsitarioko etapa guztietan. Proposamen guztiak separata batean argitaratuko dira, eta ahalik eta gehien hedatuko da.

*Carmen Maestro Martín
Estatuko Eskola Kontseiluko presidentea*

Hobekuntza proposamenak

0. Orokorrak

- 1.)** Estatuko Eskola Kontseiluak dei egiten dio Hezkuntza Ministerioari testuinguru bat bilatzeko konpromiso instituzional bat, akordio bat edo estatuko hitzarmen bat garatu ahal izateko, lurralte osoan baliagarria eta eraginkorra izango den hezkuntza-sistema baten egonkortasuna eta haren iraupena ziurtatzeko xedez, hori baita hezkuntza-sistema, irakaskuntza publikoa eta irakasleen lan-baldintzak hobetzeko ezinbesteko betekizuna.
- 2.)** Estatuko Eskola Kontseiluaren arabera, eskola publikoak izan behar du Espainiako estatuko hezkuntza-sistemaren ardatz eragile. Izen ere, herri eta hiri guztietan badago eskola publikoa, auzo eta herrixka guztietan, eta eskola horietara joaten dira estatuko ikasle gehienak. Eskola publikoari esker, derrigorrezko eskolatze-aldia ikasleen arteko (berdinenean eta desberdinenean arteko) bizikidetza aro bilakatzen da, eta, aro horretako bizikidetza esker, demokrazia hobeki garatzen da gero eta askotarikoagoa, anizkunagoa eta pluralagoa den gizartean. Botere publikoek eskola hori sustatu egin behar dute, estatu guztiko ikasle gehienen derrigorrezko eskolatze-aldia garatzen duena, eskola publikoa.
- 3.)** Estatuko Eskola Kontseiluak zera proposatzen dio Hezkuntza Ministerioari: horrelako kontu batek eskatzen duen denboran, haritzala beharrezko neurriak irakasleen ordezkariekin Irakasleen Estatutu bat adosteko, irakasleen lanbidea autonomien estatutik eta gure estatua Europaren barneratzetik eratorritako testuinguru instituzional berrietara eta gizarte-errealitye berrietara egokituko duena. Horretarako, Hezkuntza Ministerioak 2007ko apirilaren 18an arloko mahaiaren testuinguru instituzionalean hartu zituen konpromisoak oinarritzat hartu behar dira. Bestalde, irakasleen prestakuntza ezinbesteko kontua denez hezkuntza-sistemako alderdi garrantzitsuak hobetzeko, Estatuko Eskola Kontseiluak Hezkuntza Ministerioari,

Unibertsitatetako Kontseiluei eta hezkuntza-arloko administrazioei helarazten die hastapeneko prestakuntzan oinarritutako sistema berri bat eta etengabeko prestakuntzako planak sustatzeko premia, beharrezkoak baitira irakasleek gizarte- eta hezkuntza-testuinguru berriei aurre egin diezaieten, gizartearen aldetik dagokien aitorpen eta balioarekin.

4.) Estatuko Eskola Kontseiluak dei egiten dio Hezkuntza Ministerioari ebaluazio nazional eta nazioartekoak sustatzeko, hobekuntza-tresna baitira, eta ebaluazio horien emaitzetatik gure hezkuntza-sistema hobetuko duten ondorioak ateratzeko. Halaber, dei egiten dio Hezkuntza Arloko Batzarrari irakasleen artean erabaki ditzaten ebaluazio horien froga-ereduak banatzeko eta eztabaideatzeko neurri egokiak; modu horretan, gure zentroetako irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuak berritzeko eta, batez ere, ikastetxeek gauzatutako praktika onak hedatzeko lagungarri izan daitezzen.

5.) Estatuko Eskola Kontseiluak dei egiten die hezkuntza-arloko administrazioei Hezkuntzaren Lege Organikoko 84.3. artikuluan ezartzen dena betetzeko: *“Ezin da inoiz inongo bereizkeriarik egin jaiotza, arraza, sexu, erlijio, iritzi edo beste edozein baldintza edo inguruabar pertsonal edo sozialagatik”*. Lege horren arabera, ezingo da hezkuntza-itunik sinatu irakasleen matrikulazio mistoa baimentzen ez duten zentroekin, eta, sinatuta baleude, baliogabetu egin beharko dira.

6.) Estatuko Eskola Kontseiluak dei egiten die hezkuntza-arloko administrazioei bai curriculumean, bai prestakuntza-zentro eta -inguruneetan aukera-berdintasunaren, guztiotzako diseinuaren eta irisgarritasun unibertsalaren printzipioen aplikazioa sustatzeko.

1. Haur Hezkuntza

1.) Behin Haur Hezkuntzako bigarren zikloari dagokion eskolatze-aldea beteta, hezkuntza-arloko administrazioei dei egiten zaie lehen zikloko eskolatze-aldiari bultzada nabarmena emateko (2010. urteari begira

Berrikuntzen Programa Nazionalean azpimarratutako helburuak betetze aldera), eskolatze-aldi goiztiarraren etekinei buruz familieta bideratutako informazio-kanpainetan eginahala areagotzeko eta gurasoek familia- eta lan-bizitza bateratzea errazteko.

2.) Estatuko Eskola Kontseiluak atseginez ikusten du *Plan Educa 3* plana abiaraztea, aurreko kurtsoan Haur Hezkuntzako plan berezi bat eskatuz egin zuen proposamena asetzten baitu. Ekimen horrek arrakasta izan dezan, hezkuntza-arloko administrazioei eta tokiko korporazioei dei egiten zaie finantzaketa-arloan ahalegin berezia egiteko koordinazioa eta elkarlana ardatz hartuta. Halaber, estatu guztian gutxieneko kalitate-maila bat ziurtatzeko xedez, dagozkion negoziazio eta kontsultak egin ostean, Hezkuntza Ministerioak langileei eta instalazioei dagokienez bete beharreko gutxieneko betekizunei buruzko esparru beharrezkoak arautu beharko lituzke Haur Hezkuntzako ikastetxe guztiengi bi zikloetan eta baterako gutxienezko irakaskuntzako lehen zikloan; era berean, planean ezartzen diren kalitate- eta ekitate-irizpideen ebaluazioa eta jarraipena egin beharko luke, aro horri dagokion hezkuntza-izaera bermatzeko.

3.) ELOk Haur Hezkuntzari esleitzen dion hezkuntza-izaera aintzat hartuta, hezkuntza-aro horretako lehen zikloko zentroak, espezifikoki hezkuntza-arlokoak ez diren administrazio autonomikoen baitan daudenak, dagokion erkidegoko Hezkuntza Kontseilaritzaren eskumenekoak direla irizten du Estatuko Eskola Kontseiluak.

4.) Hezkuntza-arloko administrazioei dei egiten zaie hezkuntza-babesari dagozkion premia espezifikoak garaiz eta eraginkortasunez hautemateko; bereziki, ezintasunen batekin zerikusia duten premiak. Premia horiek garaiz hautemanez gero, egoera horretan dauden haurrek ikaskuntzaren aro kritiko hori baliatzen dute; izan ere, aro horrek etorkizuneko garapena eta ondorengo ikaskuntza oro baldintzatzen du haur horiengana.

5.) Hezkuntza-arloko administrazioei proposatzen zaie trantsizio-plan zehatzak taxutzea Haur Hezkuntzako azken kurtsotik Lehen

Hezkuntzako lehen kurtsora igarotzeko; halaber proposatzen zaie luza dezatela ikastetxeetan Haur Hezkuntzako bigarren zikloaren eta Lehen Hezkuntzako lehen zikloaren arteko jarraikortasuna esplizituki barneratzen duten hezkuntza-planak taxutzeko deia, familien partaidetzari arreta berezia eskaintza helburu duten ekintza koordinatuen bidez.

2. Lehen Hezkuntza

- 1.)** Hezkuntza-arloko administrazioei eskatzen zaie Lehen Hezkuntzatik hasita irakurketa sustatzeko plan zehatz bat taxutzeko. Irakasleek esparru eta ikasgai guztietan irakurketari egunero denbora jakin bat eskaintzeko legezko xedapena behar bezala betetzeko prestakuntza, tresnak eta era guztietako baliabideak izango ditu plan horrek. Halaber, zentroetan instalazio egokiz hornitutako eskola-liburutegiak eraikitzeko beharrezko jardunbideak arautu behar dira plan zehatz horretan. Liburutegietan, langile espezializatuak arituko dira, eta nahikoa baliabide eta ordutegi zabala izango da; gainera, familiei eta ikasleei bideratutako tresnak eta materialak izango ditu. Planaren eraginkortasuna bermatzeko, dagokion memoria ekonomikoa eta lortutako emaitzen aldizkako ebaluazio bat egingo dira.
- 2.)** Lehen Hezkuntzako bigarren zikloa amaitzean egiten diren diagnosi-ebaluazioek ikaskuntzarako zailtasunak hautemateko eta hobekuntza-neurriak hartzeko tresna izan behar dute. Hezkuntza-arloko administrazioei indartze- eta errekuperazio-ariketak planifikatzeko gomendatzen zaie. Ariketa horiek ikastetxeetako ohiko jardueretan txertatu behar dira, eta zailtasunak hautematen diren unean esku hartu ahal izateko adina malgutasun izan behar dute, hori baita derrigorrezko irakaskuntza amaitzen duten ikasleen arrakasta bermatzeko formula eraginkorrena. Sendotze- eta errekuperazio-ariketen planifikazioa hezkuntza-proiektuetan txertatu behar da; hori dela eta, zentroek hezkuntza-babes zehatzak behar dituzten ikasleak artatzeko nahikoa langile eta baliabide izan beharko dituzte.

3.) Estatuko Eskola Kontseiluak hezkuntza-arloko administrazioei ahalegin berezia egiteko gomendatzen die Lehen Hezkuntzatik Bigarren Hezkuntzarako bidea ahalik eta errazena izan dadin. Horretarako, bi esparrutan aritzen diren irakasleen artean koordinazio-programa egokiak taxutu behar dira; horrez gain, hezkuntza-babes zehatzetako erantzuna emateko beharrezkoak diren babes-baliabideak abiarazi behar dira.

3. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza

1.) Estatuko Eskola Kontseiluaren arabera, gure hezkuntza-sistemako arazorik larriena da derrigorrezko irakaskuntza amaitzen duten ikasleen tasa baxua, EBko herrialdeetako titulazio-mailatik oso urrun baitago. Hori dela eta, Kontseilu honek dei egiten die hezkuntza-arloko administrazioei tutoretza eta orientazioa sendotzeko eta aniztasunaren arreta hobetzen jarraitzea. Horretarako, zentro guzietan abiarazi behar dira ezintasunak dituzten ikasleentzako giza baliabideak eta baliabide materialak, hezkuntza-arloko konpentsazio neurriak eta Sendotze, Orientazio eta Babes Planak (PROA) aintzatesten dituzten programak. Halaber, plan horiek gauzatzeko eta ebaluatzeko ezagutza bermatu beharko da. Oro har, sendotze- eta babes-ariketa guztiekin planifikazio arduratsua eta “irakaskuntza-orduak” eskatzen dituzte; ordu horietako batzuk, gainera, espezializatuak izan beharko lirateke. Premiazkoa da langile kopurua handitzea (irakasle/ikasgela ratioa); izan ere, gaur egun, ikastetxeetako errealitatea nahiko eskasa da zentzu horretan. Era berean, ezinbestekoa da ikastetxeak behar adina orientazio-taldez hornitzea.

2.) DBH titulurik erdietsi gabe amaitzen duten ikasleen portzentaje altuari eta, harekin lotuta, eskola goiz uzteari dagokionez, bi gaik sorrarazten dute kezka berezia gizartean, EEEen eta agintariengana: eskola uzten duten ikasleen tasa altua nahiz hura murrizteko zailtasuna, eta autonomia-erkidego batetik bestera indizeetan dagoen alde nabarmena. Horri dagokionez, eta txosten hau eratzen zen bitartean adostu duten Eskola Uztearen Prebentzio Plana ikusirik,

Hezkuntza Arloko Batzarraren testuinguruan, Estatuko Eskola Kontseiluak ministro jaunari eskaera egiten dio, hark aipatutako organoari helaraz diezaion aurreikusten diren esku-hartzeen artean lehentasuna finkatzeko eta lehentasunezko esku-hartze horien emaitzak zorroztasun osoz ebaluatzenko premia. Horrez gain, derrigorrezko eskolatze-aldia amaitzen duten eta horren egiaztagiririk ez duten ikasleentzat ateren bat irekitzeko aukera aztertzeko proposamena luzatzen dio EEEk Batzarrari. Zehazki, ikasle horiei lan-arloan baliagarria izango zaien ziurtagiri ofizial bat emateko komenigarritasuna aztertza iradokitzen du, lanbide-modulu jakin batzuetarako sarbidea izateko aukera emango diena, bakoitzaren egoera eta aukerak aintzat hartuta.

3.) “Eskola-porrota” mutilek izaten dute gehienbat. Hori dela eta, hezkuntza-arloko administrazioei gomendatzen zaie berezitasun horren zergatiaren ikerketa egitea eta gazteentzako erakargarria izango den prestakuntza-eskaintza barneratzen duten plan zehatzak taxutzea. Plan horietan, gainera, familietara bideratutako kontzientziazo-kanpainak egingo dira, eta baita jarduera zehatzak ere; esate baterako, tutoretza eta eskola-orientabidea, hezkuntza-babesa eta banaketa sendotzea. Horrekin batera, familial eta gizarte-arloan gabeziak dituzten ikasleak, edo eskola-instituzioak alboratutako ikasleak artatzeko beharrezkoa den langile kopurua hartu behar da.

4.) Estatuko Eskola Kontseiluak dei egiten die Hezkuntza Ministerioari eta hezkuntza-arloko administrazioei dagoen eskariari erantzuteko eskaintza nahikoa eta eraginkorra sortzeko, Hasierako Lanbide Prestakuntzarako Programen bidez. Eskaintza ugariagoa hedatzeko eta hasierako lanbide-prestakuntzatik gradu ertaineko prestakuntza-zikloetarako sarbidea errazteko, hainbat irizpide kontuan hartu beharko dira, hala nola ingurune sozial eta ekonomikoa, eta prestakuntza jasotzeko eta enplegua lortzeko egiazko premia. Ildo horretatik, Kualifikazioen Sistema Nazionalean eta Lehen Mailako Lanbide Heziketan barneratzen diren kualifikazioak areagotu egin beharko lirateke; izan ere, horrela egiten ez bada, epe laburrera PCPI delakoen

bideragarritasuna ezinezkoa litzateke, haren irakaskuntza garatzeko funtsezko erreferentziarik ez izateagatik.

4. Derrigorrezkoaren ondoko irakaskuntza: Batxilergoa eta Lanbide Heziketa

1.) Estatuko Eskola Kontseiluak jakinarazten du beherakada nabarmena izan dela Spainian, 18 eta 24 urte bitarteko ikasleen artean, Derrigorrezkoaren Ondoko Bigarren Hezkuntzaren titulazio-tasan. Horregatik, dei egiten die hezkuntza-arloko administrazioei hura areagotzeo beharrezkoak diren neurriak hartzeko, egungo %61,4ko tasa Europako %85eko tasan kokatzeko xedez; halaber, dei egiten die derrigorrezkoaren ondoko irakaskuntzari buruzko informazioa hedatzeko eta ezintasunen bat duten ikasleek hezkuntza-sistemaren barruan derrigorrezkotik haratago aurrera egin dezaten ahalegina egiteko, ikasle horiek prestakuntza-maila altuagoetarako sarbidea izate aldera. Horretarako, ezinbestekoa izango da jarraikortasuna eta egonkortasuna bermatzea babes-baliabideak aurreikustean eta ezartzean.

A) Batxilergoa

2.) Estatuko Eskola Kontseiluaren arabera, ezinbestekoa da Batxilergoan malgutasun handiagoa izatea, hezkuntza-aro horretan kalitatezko eskaintza askotarikoa areagotuz; eta dei egiten dio Hezkuntza Ministerioari Estatu guztian behar bezala planifikatutako Batxilergo gau-eskolen eta urrutikoen eskaintza bermatuko duen araudia onartzeko. Malgutasun handiagoak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako azken urtean orientazioa indartzea eskatzen du, ikasleak informazio ugaria izan dezan, unibertsitateko ikasketa berrien diseinuari dagokion informazioa barne; modu horretan, ikasleak bere konpetenzia edo interesetara hobekien egokitzen den modalitate edo bidea hautatu ahal izango du.

3.) Dei egiten zaie Hezkuntza Ministerioari eta hezkuntza-arloko administrazioei Bigarren Hezkuntzako zentroen eta unibertsitateen artean koordinazio egokia izateko, unibertsitaterako sarbide-probak Batxilergoko eduki eta funtzoetara egokitze aldera; Batxilergoan eskolak ematen dituzten irakasleek probak diseinatzen parte hartzea eskatzen du horrek.

B) Lanbide Heziketa¹

4.) Estatuko Eskola Kontseiluak jakinarazten du desoreka nabarmena hauteman dela ikasketa profesionalen eta ikasketa akademikoen matrikulazio-tasan; izan ere, ikasketa profesionalean, tasa askoz apalagoa da. Hori dela eta, ezinbestekotzat jotzen da irakaskuntza profesionalak diseinatzerakoan eta planifikatzerakoan enpresa munduaren, unibertsitateen eta eragile ekonomiko eta sozialen arteko lankidetza handitzea proposatzea, gradu ertaineko Lanbide Heziketako zikloetan matrikulazioa areagotzeko neurriak hartzeko xedez:

- ELOaren testuinguruan Lanbide Heziketako Tituluen Katalogoaren garapena osatzea, eskaintza ekoizpen arloko premia eta eskarietara egokitzeo dagozkion joera-azterketak egin ostean; hori guztia irakaskuntza profesionalak diseinatzerakoan eta planifikatzerakoan enpresa munduaren eta eragile sozialen arteko lankidetza handiagoa sustatzu.
- Ziklo hauetara sartu eta titulua eskuratzen duten ikasle kopurua areagotzeko informazio-kanpainak sustatzea eta, irakaskuntza horri dagokionez, gazteentzat erakargarria, neurrikoa eta askotarikoa izango den eskaintza izango duten zentro kopurua areagotzea. Eskaintza horretan, lanbide-prestakuntzak eta irisgarritasun unibertsaleko prestakuntza-moduluak sartuko dira,

¹ 2007/08 kurtsoan Lanbide Heziketari eskaini zaion arretak eta mota horretako azterketak erabakitasunez sustatzeko premiak justifikatzen du hobetzeko proposamen gehiago egitea.

eta, kalitatea hobetzea oinarri hartuta, hartara jo nahi duten ikasle guztiak eskolatzea bultzatuko da honako baliabide hauen bidez: inbertsio handiagoa, ikasgelako ikasle kopuru murritzagoa, lanerako material eta tresnak, ikasketa eta praktika egokiak, etab. Halaber, dei egiten dio Hezkuntza Ministerioari mugikortasun-programak eta informazioko eta orientazio profesionaleko politikak sustatzen jarraitzeko.

- Lantokiko Prestakuntza (LP) modulua sustatzea eta ikuskaritzaz erbitzuen bidez modulu horren garapen egokia ziurtatzea, LP horren zati bat Europako herrialde batean egin ahal izateko eta prestakuntza-modulu hori egiten ari den bitartean ikaslearentzat finantzaketa-mekanismo espezifikoak ezartzeko. Halaber, dei egiten zaie hezkuntza-arloko administrazioei ezintasunen bat duten ikasleek lan-ingurune biderakorretan kalitatezko kanpo-praktikak egitea ziurtatzeko.
- Estatuko Eskola Kontseiluak gomendatzen du gradu ertaineko eta goi-mailako Lanbide Heziketako irakasleen prestakuntzaren premietan arreta berezia ezartzea. Ezinbestekoa da itunpeko zentro publiko eta pribatuetako irakasle guztiei zuzendutako prestakuntza-programak eta lan- eta diru-pizgarriak orokortzea, ikasgai bakoitzaren berrikuntza espezifikoak eta azkeneko aurrerapen teknologikoak hobetzeko eta ezagutzeko; modu horretan, jarduera profesionalen eskakizunekin egokitzen den irakaskuntza-maila mantentzeko bidean, ikasle guztiak jarduera profesional horietan gaitzeko lana egiten ari baita.

5.) Estatuko Eskola Kontseiluak DBHko titulua eskuratzeko zailtasunak dituzten gazteen kolektiboei arreta berezia eskaintza gomendatzen du, ikasten jarrai dezaten; izan ere, gradu ertaineko LHko zikloetan matrikulatu beharko lirateke.

- Hasierako Lanbide Prestakuntza Programak orokortzea DBHko eskola-porrota murrizteko xedez, eta Hasierako Lanbide Prestakuntza Programetatik gradu ertaineko zikloetarako

sarbidea hobetza, sarbide-probak prestatzeko kursoen eskaintza zabala egin eta “online” bidezko, presentzia erdiko edo urrutiko modalitateak gehituz. Halaber, Hasierako Lanbide Prestakuntza Programetik gradu ertaineko zikloetara sarbide zuzena izateko kurso bat ezartzeko prozedura abiaraztea gomendatzen da, horretara egokitutako prestakuntza-eskaintza izango duena.

- LHko ikasleentzat beka espezifikoak ezartzea hezkuntza goiz uztea ekiditeko, eta ikasle eta enpresariei pizgarri ekonomikoak eskaintza prestakuntza/enplegu bitasuna barneratzen duten formulak garatzeko xedez; modu horretan, prestakuntza eta lana denbora partzialean bateratu ahal izango dituzte.
- Estatuko Eskola Kontseiluak dei egiten dio Hezkuntza Ministerioari gradu ertaineko prestakuntza-zikloa egiten ari den ikasleak goi mailako zikloetara sartzeko aukera izatea bermatzea, igarotze horretan garrantzia nabarmena izango duen sarbide-kurso baten bidez.

6.) Estatuko Eskola Kontseiluak, era berean, goi-mailako bigarren hezkuntza eskuratu ez duten eta hezkuntza-sistemara itzul daitezkeen helduen kolektiboei arreta berezia eskaintza gomendatzen du; kolektibo horiek DBHko titulua eskuratzea edo gradu ertaineko LHko eskaintzara sartzea lehenetsita. Horretarako, zera proposatzen da:

- Titulazioen eskaintza areagotzea, boluntariotza soziala ere aintzatetsiz, eta irakaskuntza presentzialen malgutasuna eta hura gauez emateko aukera areagotzea; horrez gain, teleprestakuntza eta urrutiko prestakuntza plataformak garatzea.
- Funtzio akademikoa eta lan-arlokoa izango duen Aukera Berrien Zentroen Sare bat abiaraztea. Bertan, DBHko mailei dagokienez eskuratutako oinarrizko konpetentziak zehaztuko eta egiaztatuko lirateke, Lan Administrazioko Profesionaltasun

Ziurtagirietan barneratzen diren lehen mailako konpetenzia profesionalak aitortzearekin eta egiaztatzearekin batera. Orobak, DBH titulua osatzeko edo 2. eta 3. mailei dagozkien Profesionaltasun Ziurtagiriak lortu ahal izateko eskatzen diren oinarrizko konpetentziak eskuratzeko egokitutako prestakuntza-eskaintzak zabalduko dira. Sare horretan, zentro berriak, Lanbide Heziketako Zentro Integratuak, Helduentzako Zentroak eta goizeko zein gaueko txandak dituzten Institutuak sartu ahal izango lirateke.

- Estatuko Eskola Kontseiluaren arabera, ezinbestekoa da baliabideak optimizatzea Lanbide Heziketako bi azpisistemetan (hasierakoa eta enplegurako prestakuntza); horretarako, prestakuntza-zikloen, batxilergoaren eta bestelako ikasketen arteko malgutasun handiagoa ezarri beharko litzateke, sistema arautu eta ez-arautu oro eraginkortasunez antolatuz eta integratuz. Era berean, Kontseiluak beharrezkotzat jotzen du lan- eta hezkuntza-administrazioek kudeatutako informazioaren eta orientazioaren sistema integratu bat sustatzea; horrez gain, derrigorrezkotzat jotzen du informazioarekin, orientazioarekin eta herritarren arretarekin zerikusia duten politikak, sistemak eta praktikak sendotzea eta ezintasunen bat duten ikasleei laguntzeko baliabide teknologikoak ezartzea.

5. Etorkizuneko lehentasun nagusia: hezkuntzan inbertitzea (gastua)

- 1.) Spainian, hezkuntza-arloko gastu publikoa Europako Batasunaren eta ELGAren batez bestekoaren azpitik kokatzen da. Horren ondorioz, dei egiten zaie hezkuntza-arloko administrazioei ELOko 155.2. artikuluan ezartzen dena betetzeko, ezarritako helburuak lortu eta, ahalik eta denbora laburrenean, EBko herrialdeen parean kokatze aldera, bai BPGd-ari dagokion gastuan, bai ikasleko urteko gastuan.

2.) Krisi-egoera honetan, EEEk are arrazoi gehiago ditu Hezkuntzako ministro jaunaren bitartez Gobernuari 2010. urterako Aurrekontu Orokoren barnean Hezkuntzari dagokion inbertsioa nabarmen areagotzea eskatzeko, eta halaxe egiten du. Bereziki, honako helburu hauekin lotutako partidak sendotzea lehenesten du:

- I) Eskola-azpiegitura hobetzea; zentroak berritu, hobetu eta hornitzearen bidez. Gastu publikoa areagotzeari dagokion zati handi bat hezkuntza- eta prestakuntza-arloan aplikatzeko informazioaren eta komunikazioaren teknologietara bideratu beharko litzateke.
- II) Hasierako Lanbide Prestakuntza Programen eskaintza, neurrikoa eta eraginkorra.
- III) Irakasleei etengabeko prestakuntza eskaintza, oinarrizko konpetentziei, hizkuntzei, hezkuntzara aplikatutako informazioaren eta komunikazioaren teknologien erabilera eta aipatutako lanabes didaktikoetan oinarritutako hezkuntza-eredu malguei dagokienez, eta baita ezintasunen batetik eratorritako hezkuntza-premia bereziei buruzko ezagutza eta esku-hartzeari dagokienez ere.
- IV) Haur Hezkuntzako lehen zikloko premiak asetzea.

3.) Dei egiten zaie hezkuntza-arloko administrazioei Europako eta ELGAko batez bestekora hurbiltzeko ahalegina egiteko, hainbat programa europarretan eskaintzen dituzten mugikortasun-bekei dagokienez.

4.) Aurreko kurtsoetako txostenetan egin zen proposamena indarrean dago oraindik; alegia, legealdi hau amaitzean, hezkuntzara bideratutako inbertsioa barne produktu gordinaren % 7raino areagotzea, hainbat urtetan gure inguruko beste herrialde batzuek baino inbertsio txikiagoak egitearen ondorioz pilatutako egiturazko defizitak gainditzeko.

6. Bizikidetza

- 1.) Araudi espezifiko eta oinarrizko onartzea proposatzen da, ikastetxe guztiak hezkuntza-proiektua, aniztasunaren arretari buruzko plana eta bizikidetza-plana abiarazteko behar dituzten baliabide materialak eta giza baliabideak izan ditzaten, eta kasu bereziak ebazteko nahikoa antolamendu-gaitasun izan dezaten.
- 2.) Estatuko Eskola Kontseiluak hezkuntza-arloko administrazioen eta hedabideen arteko jarduketa-protokolo bat taxutzea proposatzen du, helburu bikoitza izango duena: ikastetxeen bizikidetzarekin lotuta sortzen diren arazoei aurre egiteko tratamendu zorrotza erdiestea, ikasleengän hedabideek nahiz Internetek zenbateraino eragiten duten hautemateko ekimenak garatzea, eta hedabide horien zentzuzko erabilera bultzatzea.
- 3.) Bizikidetzaren Behatokiaren bidez, ikasle etorkin kopuru altuaren heziketari buruzko ikerketa bat egitea proposatzen zaio Ministerioari: integrazio eraginkorra, emaitza akademikoak, ikasle horiek hartzen dituen ikastetxearekiko erakusten duten jarrera, etab. Halaber, Ebaluazioaren Instituvari dei egiten zaio ikasleen arteko bizikidetasunaren alde aintzat hartzen diren balio eta jarrerei, eta ikastetxe horietako eskola-giroari buruzko ikerketa bat egiteko, gatazkei benetako irtenbideak emateko eta hartutako neurriek ekarri duten onura ebaluatzeko. Ikerketa horiek hedatzea eta bitartekotazko jarduera adierazgarriak jaso eta hedatzea, kultura ezberdinetako ikasleen arteko bizikidetza sustatzea, eta gizon eta emakumeen arteko benetako berdintasuna sustatzea gomendatzen da.
- 4.) Estatuko Eskola Kontseiluak dei egiten dio Hezkuntza Ministerioari ikastetxeetako Bizikidetza Batzordeetan DBHko irakasle, guraso eta ikasleen artean eraketa paritarioa ezartzea derrigortuko duen araudi bat garatzeko.
- 5.) Estatuko Eskola Kontseiluak dei egiten dio Ministerioari Eskola Bizikidetasunaren aldeko Hobekuntza Plana ebaluatzeko. Plan

horretan, hainbat hitzarmen sinatu zituzten hainbat instituzio, eragile sozial eta eskola-elkarteko erakundek, BiziKideTza Plana sendotzeko tresna gisa, eta zenbait sektorek plan horri egiten zioten jaramon urri edo ezdeusa salatu zen. Halaber, dei egiten zaie Hezkuntza Ministerioari eta Hezkuntza Arloko Batzarrari ikasleen eskubideak, betebeharrok eta bermeak aintzat hartuko dituen marko berri bat garatzeko eta eskolako biziKideTza lantzeko baterako irizpide batzuk ezartzeko.

7. Hezkuntza-partaidetza

1.) Estatuko Eskola Kontseiluak dei egiten die hezkuntza-arloko administrazioei partaidetzaren sustapena lagez arautzeko; horretarako, eskola-elkardea osatzen duten sektore guztietan partaidetza garatzeko baliabideak bermatu eta areagotu behar dira.

8. Unibertsitatekoak ez diren irakaskuntzako etapa guztietako hobekuntza-proposamenak

1.) Dei egiten zaie hezkuntza-arloko administrazioei zentroen autonomia bultzatzeko; modu horretan, premien diagnosia egin, hartu beharreko neurriak diseinatu eta bakoitzaren hezkuntza-proiektuak taxutu ahal izateko. Horretarako, eginahalaren kultura eta espiritu ekintzailea sustatu behar dira. Orobata, irakasle-taldeen arteko lankidetza sustatu behar dute eta, era berean, tutoretzak eta eskolab-orientabidea sendotzetik abiatuta ikastetxeen eta familien arteko lankidetza sustatu behar dute; hori dela eta, dei egiten zaie hezkuntza-arloko administrazioei eta ikastetxeen familien implikazioa eta partaidetza sendotzekeo. Horretarako, familiaren eta eskolaren arteko harremana errazteko behar diren neurriak hartu, alde guztientzat zilegi diren ordutegiak ipini eta dagozkion lan-baimenak ezarri behar dira. Halaber, dei egiten zaie Hezkuntza Ministerioari eta hezkuntza-arloko administrazioei ELOko hogeita bederatzigarren xedapen gehigarria

aplikatzeko, hitzartutako modulu kopurua zehazte aldera eta irakaskuntza horien doakotasuna benetan finkatzeko xedez.

2.) Estatuko Eskola Kontseiluak dei egiten die botere publikoei, I+G Plan Nazionalaren testuinguruan eta kalitatea bermatzeko Europako irizpideei jarraituz, ikastetxe eta prestakuntza zentro guztieta programoa espezifikoak abiaratzeko.

3.) Estatuko Eskola Kontseiluak Hezkuntzako ministro jaunari eta Unibertsitateetako Kontseiluei adierazten die Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako nahiz Bigarren Hezkuntzako masterra arautzen dituen araudia osatzeko premia, eta baita aniztasunaren arretan espezializatutako araudia ere. Horrez gain, ikasketa horietan prestakuntzaren alderdi praktikoa hasiera-hasieratik ezinbestean zorroztasun osoz barneratzeko eta aplikatzeko beharra adierazten du; izan ere, hori horrela egiteak eragin motibagarri eta dinamizatzalea izango luke praktika horiek garatzen diren zentroetan, eta joera hori Bigarren Hezkuntzako zentro guztieta hedatuko litzateke. Halaber iradokitzen du hezkuntza-arloko administrazioen implikazioa eskatzen duten irizpideak erabiltzea eta jardunbide berritzaile eta eraginkorra ziurtatzen duten irakasleak hautatzea irakasleak berak eta praktikak egiteko zentroak hautatzerakoan; horrez gain, dei egiten dio UHUNI Bigarren Hezkuntzako masterraren eskaintza abiarazteko esparru nazional guzian interesa izan dezaketen ikasleen eskuragarri izateko. Azkenik, Estatuko Eskola Kontseiluak ezinbestekotzat jotzen du premia profesional berrietara egokitutako etengabeko prestakuntza-planak garatzea; horretarako, hizkuntzak ikasteari lehentasuna eman behar zaio, eta, era berean, garrantzitsua izango da ikasgelan oinarrizko konpetentziak garatzea, TIKak erabiltzea eta ezintasunen bat dutenei hezkuntza-babesa eskaintzeko prestakuntza hedatzea.

4.) Ezinbesteko da atzerriko hizkuntzen irakaskuntzan hobekuntzak sustatzea. Testuinguru horretan irakasleen eta langile laguntzaileen arteko trukea ahalbidetuko duten erabakiak eta, bereziki, beste herrialde batzuetatik etorritako irakasleei dagokienez, tituluak baliozketzeko prozedurak berrikustea eta bizkortzea ahalbidetuko

duten erabakiak hartu beharko lirateke. Orobak, Estatuko Eskola Kontseiluak dei egiten dio Hezkuntza Ministerioari 1629/2006 dekretua aldatzeko, hizkuntza-eskola ofizialek hizkuntzari dagozkion erreferentziazko Europako Marko Komunean barneratzen diren C mailak eman eta ziurta ditzaten.

5.) Estatuko Eskola Kontseiluak dei egiten die botere publikoei hezkuntza-eskaintzaren programaketa egokia gauzatzeko, eskolatze erabatekoa eta orekatua eraginkor bihurtzeko xedezi, inolako bazterkeriarik gabe; horrez gain, dei egiten die itunpeko zentro publiko eta pribatuetan sartzeko aukera izan dezaten hezkuntza-sisteman berandu sartzen diren ikasle etorkinek, arazoak dituzten edo eskola uzteko edo gizarte-bazterkeria pairatzeko arriskuan dauden ikasleek eta hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleek; bereziki, curriculumari dagokionez desfase nabarmena duten edo dagokion autonomia-erkidegoko hizkuntza ofizialak ezagutzen ez dituzten ikasleen kasuan. Halaber, dei egiten zaie administrazioei beste herrialde batzuetatik etorritako ikasleek eskolan, maila pertsonalean, familian eta gizartean bizi duten egoera aztertzeko baliabide-zentroak eta harrera-taldeak sortzeko, zentroetako hezkuntza-arloko taldeekin lankidetzan azken ebaluazioa edo diagnostia egin dezaten eta arreta bereziko neurriak ezar ditzaten.

6.) Estatuko Eskola Kontseiluaren arabera, ezinbestekoa da haurtzaroa eta nerabezaroa erabat garatzea; hori dela eta, dei egiten die hezkuntza-arloko administrazioei tokiko administrazioekin eta bertako kultura-, osasun- eta gizarte-zerbitzuekin lankidetza sustatzeko, eskolatutako biztanleen osoko arreta hobetu dadin.

7.) Estatuko Eskola Kontseiluak dei egiten die Gobernuari eta Parlamentuari derrigorrezko eskolatze-aldia 18 urtera igotzeko dagozkion aldaketa legalak gauzatzeko.

8.) Estatuko Eskola Kontseiluak dei egiten dio Gobernuari irakasleen erretiro aurreratu mugagabea bermatzeko (beste lan-eskubide batzuez gain²).

9.) Hezkuntza-sistemaren egoeran eragiten duten alderdi guztiei buruzko diagnosi doitu bat egin ahal izateko, Estatuko Eskola Kontseiluak dei egiten die Hezkuntza Ministerioari eta hezkuntza-arloko administrazioei ikerketa bat egiteko honako gai hauei buruz: Haur Hezkuntzako bi zikloak ikastetxe ezberdinetan betetzeak dituen abantaila eta desabantailak, lurralde-eremu bakoitzean dauden proiektu elebidun eta eleanitzak, kurtsoak errepikatzea eta horrek eskola-arrakastan dituen eraginak, irakasleen absentismo-maila, familien eta ikasleen ikuspegitik derrigorrezko eskolatze-aldia uztearekin lotutako arrazoia (eskola uztea garaiz hautemateko adierazleak garatzeko asmoz) eta Bigarren Hezkuntzako ikasleen benetako eskola-ordutegia.

² MUFACEko pentsiodunentzat farmazia-prestakuntza dohain eskaintza. Urteko mediku-azterketak egitea Lan Arriskuen Prebentziorako Legeari jarraituz.

Informe sobre el estado y situación del sistema educativo

Curso 2007/2008



Índice

Presentación.....	5
Propuestas de mejora	11
<i>0. De carácter general.....</i>	11
<i>1. Educación infantil</i>	13
<i>2. Educación primaria.....</i>	14
<i>3. Educación Secundaria Obligatoria</i>	15
<i>4. Enseñanzas postobligatorias: Bachillerato y Formación Profesional</i>	17
<i>5. La máxima prioridad de futuro: invertir en educación (el gasto) .</i>	22
<i>6. Convivencia</i>	23
<i>7. Participación educativa</i>	24
<i>8. Propuestas de mejora comunes a todas las etapas de las enseñanzas no universitarias.....</i>	25

Presentación

El Consejo Escolar del Estado, en la sesión plenaria de 4 de junio de 2009, ha debatido y aprobado el Informe anual sobre el estado y situación del sistema educativo español correspondiente al curso 2007/2008. Con ello, el máximo órgano consultivo y de participación de las enseñanzas no universitarias cumple con su función de participación en la programación general de la enseñanza. Este informe es el vigésimo segundo desde que la Ley Orgánica 8/1985, de 3 de julio, reguladora del Derecho a la Educación, crease el Consejo Escolar del Estado asignándole el cometido de elaborar, aprobar y hacer público dicho informe en cada curso académico. El presente ha sido fruto de un intenso trabajo y de la integración de las aportaciones generosas y constructivas de los distintos sectores directamente implicados en la educación que están representados en el Consejo. Quiero mostrar mi agradecimiento al conjunto de los consejeros y consejeras porque en este curso hemos logrado, gracias al esfuerzo de todos, aprobar el informe del curso pasado antes de finalizar el actual.

De la lectura atenta y el análisis del contenido del *Informe sobre el estado y situación del sistema educativo en el curso 2007-2008* se puede extraer una síntesis que permite delimitar cuáles son los retos más importantes de la educación española, que coinciden en señalar los sectores representados en este órgano supremo de participación en la programación general de la enseñanza, así como las actuaciones urgentes que es preciso acometer para afrontarlos con éxito:

1^a Que se produzca un incremento sustancial en los Presupuestos para el 2010 de la inversión en educación reconociendo así que es la mejor inversión de futuro en época de crisis y utilizar los recursos del *PlanE* para mejorar, además del empleo, la infraestructura escolar como patrimonio y reflejo de la ciudadanía.

